



PARTE HARTZE PROZESUA ETA HERRI GALDEKETA 2020

*PROPOSAMENA

AZALPEN OROKORRA

- Zer da udalak herritarren erabakiaren esku utziko duena?

2020. urtean Amasa-Villabonako udalak **400.000 euro** zein inbertsio zehatz gauzatzeko erabiliko dituen.

- Zer izango da herritarrek aukeratu beharko dutena?

Hainbat proiektu edo egitasmo egongo dira aukeran.

Proiektu bakoitzak bere azalpena, irudia eta aurrekontua izango du eta herritarrek proiektu ezberdinak aukeratu ahal izango dituzte. Beti ere, 400.000 euroko aurrekontua gainditu gabe.

- Nortzuk parte hartu ahal izango dute?

Amasa-Villabonan erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritar guztiak.

PROZESUAREN FASEAK

➤ LEHEN FASEA: PROZESUAREN DEFINIZIOA

Udalaren helburua, prozesu honen nondik norako nagusiak (metodologia, tresnak, epeak...) modu argi eta adostu batean onartzea izango da eta horretarako definizio fase honetan alderdi politikoei, elkarte eta eragileek zein norbanakoei beren ekarpenak eta hobekuntzak aurkeztu ahal izango dituzte. Helburua erabateko adostasuna edo gutxienez adostasun zabala lortzea izango da.

1.1 Udaleko "Herritarren parte hartze Batzordea" bildu.

Udaleko alderdi politikoei proposamena aurkeztea. Bilera urtarrilaren 9an egin zen eta udal gobernuaren proposamena aho batez onartu zen.

1.2 Prozesuaren proposamenaren aurkezpen irekia.

Herriko elkarte, eragile eta norbanakoei proposamena aurkeztu, batzar ireki baten bidez.

1.3 Bigarren batzar irekia: Otsailaren 13n

Elkarte, eragile eta norbanakoen ekarpenak/proposamenak jasoko dira, prozesua hobetzeko helburuarekin. Batzar honetan udalak prozesua garatzeko erabiliko dituen tresnak aurkeztuko ditu: Web orri eraberritua, Telefonoetarako App aplikazio berria, lehen informazio triptikoa etab.

1.4 Udaleko “herritarren parte hartze Batzordea” bigarren aldiz bilduko da.

Batzorde honek batzarren ondoren osatutako prozesuaren definizioaren dokumentua onartu beharko du.

➤ 2. FASEA: PROZESUAREN BERRI EMATEA

Behin prozesua definituta, **prozesuaren lehen aurkezpen publikoa** egingo da: Prentsurrekoa, lehen triptikoaren zabalpena, web orriko gune bereziaren eta aplikazioaren aurkezpena, sare sozialak erabiliz zabalpena ematea etab.

Lehen berri emate honetan, prozesu osoaren azalpen orokorra egingo da baina batez ere, proiektuen proposamenak egiteko (prozesuaren 3. fasea) ezarriko diren epeak, bitartekoak eta baldintzak jakinaraziko dira.

➤ 3. FASEA: PROIEKTU PROPOSAMENAK JASO

Parte hartze prozesu honetan, herritarrek eta elkarteek beren proposamenak aurkezteko epe bat zabalduko da. Proposamen hauek ibilbide bat izango dute eta bete beharreko baldintzak betetzen dituzten proiektu proposamenak, aukeratzeko egongo diren proiektuen artean txertatuko dira.

3.1 Proiektuak aurkezteko epea: Martxoak 9-29

Elkarteek maila kolektiboan edo edozein herritarrek bere proiektu proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte udalean. Proposamenek baldintza batzuk bete beharko dituzte: Zehaztasuna, justifikazioa, aurrekontua etab.

Udalak baliabideak jarriko ditu proiektuak telematikoki edota udal bulegoetan aurkezteko. Inprimaki berezia sortuko da horretarako.

3.2 Jasotako proiektuen azterketa: Apirilak 19 arte

Udal teknikariek jasotako proiektuak aztertuko dituzte: Bideragarritasun ekonomikoa, juridikoki egingarria den, araudia errespetatzen duen... egiaztatzeko. Proiektua aurkeztu dutenei erantzun bat emango zaie beti.

➤ **4. FASEA: GALDEKETAREN PRESTAKETA: APIRILAK 24 - MAIATZAK 10**

Aukeratzeko egongo diren proiektuen behin betiko zerrenda osatzea eta euskarriak martxan jartzea: Aldizkari informatiboa, webgunea, App...

Euskarri hauek irizpide batzuk bete beharko dituzte: Proiektuen azalpenen objektibotasuna, proiektu guztiek tarte berbera izatea etab. Proiektu konketuren batek "abantaila" izatea edo euskarrien diseinuak herritarren botoa "bideratzea" saihestu behar da.

➤ **5. FASEA: INFORMAZIOAREN ZABALPENA: MAIATZAK 11-17**

Behin aukeratzeko izango diren proiektu edo egitasmoak erabakita, herritarrei informazioa zabaltzeko momentua izango da.

Fase Informatiboa: Ahalik eta tresna eraginkorrenak erabiliko dira herritarrek prozesuaren berri izan dezaten: Prentsaurrekoa, aldizkariaren buzoneoa, galdeketaren metodologiaren azalpena, komunikabideak...

Aste horretako helburua, herritar guztiek galdeketaren informazio objektibo, garden eta erraz ulertzeko modukoa jasotzea izango da.

Horretarako tresna komunikatibo berritzaileak erabiliko dira: Bideoak...

➤ **6. FASEA: GALDEKETA. BOZKATZEKO EPEA: MAIATZAK 22-31**

Bozka emateko bi modu nagusi izango dira:

✓ **BOZKETA TELEMATIKOA: MAIATZAK 22-31**

Herritarrek Web orrian edo Aplikazioan bozkatu ahal izango dute. Mekanismo tekniko nahikoak daude, iruzurra edo tranpa egon ez dadin.

✓ **BOZKETA PRESENTZIALA: MAIATZAK 25-31**

Udaletxeko herritarren arreta bulegoan hautestontzia egongo da. Asteaz zehar arratsalde batez eta larunbata eta igande goizean irekita.

➤ **7. FASEA: BOZKEN KONTAKETA. MAIATZAK 31**

Kontaketa berme guztiekin egingo da: Udal Idazkariaren eta Herritarren parte hartze Batzordeko ordezkari politikoen presentziarekin.

Kontaketa ekitaldi publikoa izango da, herritarrek ikusle gisa parte hartu ahal izango dute.

➤ **8. FASEA: EMAITZAREN BERRI EMATEA: EKAINAK 1**

Udalak (herritarren parte hartze batzordeko kideek) emaitzak publikoki aurkeztuko ditu komunikabideen aurrean.

Ondorioz, udalak 2020. urtean abiatuko dituen proiektuak zeintzuk izango diren adieraziko da.